27 nº zbk

Beasaingo Udala

# Beasaindik

JUNIO **2018 EKAINA**

**Udal Aldizkaria** *Revista municipal*

# Kiroldegiko igerilekuak itxura berriarekin emango dio hasiera udari

## *Las piscinas exteriores abrirán sus puertas el 15 de junio con nuevo césped*



## AURKIBIDEA | *ÍNDICE*

**ETORKIZUNEKO BEASAIN ERAIKITZEN**

**2** ¬ Azken txanpan gogotsu bezain indartsu
¬ *Establecidas las bases para la concesión de las ayudas para el coworking*
¬ Belar artifiziala kanpoko igerilekuan
¬ *Comienzan las obras de mejora en Zapatari y Martin Aranburu*
¬ Hobekuntzak udaletxean: Itxitura Udaltzaingoan eta komun berriak lehenengo solairuan

**BEASAIN, HERRI BIZIA**

**4** ¬ Loinatz jaiak
¬ Ibaiaren garbiketa
¬ Nekolalden asfalto inprimatua
¬ Zaldizurretako argiteria
¬ Euskadiko errugbi txapeldunak
¬ Agenda 21
¬ Eusport
¬ Dantzari txiki eguna

**BEASAINDARRAK PROTAGONISTA**

**6** ¬ Herritarren erosotasunaren alde lanean: han eta hemen

**BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA**

# GUTUNA



**Aitor Aldasoro**
Beasaingo Alkatea

## AZKEN TXANPAN GOGOTSU BEZAIN INDARTSU

Egunerokotasunean murgilduta ziztu bizian pasatzen zaizkigu egun, aste eta baita urteak ere eta laster azken txanpari, legealdiko azken urteari, ekingo diogu. Lehen egunean bezain gogotsu eta ilusioz.

Hiru urte pasa dira jada eta atzera begira, bada errepasatu eta erreparatu beharreko hainbat gai.

Enplegu sustapenera bideratu ditugu, bereziki, gure indarrak, enplegua delako pertsonen ongizatearen berme nagusia, finean, lanak pertsona duintzen laguntzen baitu; baina herritarren ongizate eta bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin ere hainbat egitasmo sustatu ditugu: Goiz Alzheimer, Goiz Zaindu, Beasain Lagunkoia, Baratze Sozialak; herriko irisgarritasuna ere hobetu dugu, hirigintza pertsonen zerbitzura jarriaz, oinezkoei lehentasuna emanez, igogailuak ipiniz etab..

Herriari bizia eta nortasuna emateko hainbat proiektu gauzatu ditugu: Igartza Musika Beka, Igartza Musika Programa, dantzan.eus-ekin hitzarmena herrian euskal dantza errotzeko, Loinatz futbol zelaiko belar artifiziala honen erabilera areagotzeko edota euskararen erabilera indartzeko hartutako neurriak, hala nola, martxan jarritako Hizkuntza Errefortzu Zerbitzua.

Zerrenda luzea da eta legealdia oraindik ez da amaitu eta anbizioko proiektu garrantzitsuak ditugu esku artean: Erauskin, Dolarea, Usurbe antzokia, Herrilab…

### *Ambiciosos proyectos para la recta final de la legislatura*

*Sumidos en el trabajo del día a día casi nos olvidamos de todo el trabajo realizado durante los tres años que llevamos en el Ayuntamiento. El empleo ha sido nuestra principal prioridad, pero también lo ha sido mejorar el bienestar de la población impulsando el envejecimiento activo y un urbanismo más amable pensado por y para las personas. También hemos puesto en marcha iniciativas como Igartza Musika Programa, Igartza Musika Beka o los premios al deporte para dar vida e identidad a nuestro municipio. La lista de los proyectos realizados es larga y la legislatura aún no ha concluido. Tenemos entre manos ambiciosos proyectos a corto, medio y largo plazo como la peatonalización de Erauskin, la renovación de Dolarea o la reurbanización de la Portería.*



## *ESTABLECIDAS LAS BASES PARA LA CONCESIÓN DE LAS AYUDAS PARA EL COWORKING*

*Con el objeto de promover el emprendimiento y la creación de nuevos puestos de trabajo y nuevas estructuras empresariales, el Ayuntamiento ha creado este año una nueva línea de subvención para el coworking.*

*En Beasain ya existe un Co-Work Center que permite a sus integrantes compartir no sólo gastos, sino también conocimientos y experiencias. Está dirigido, especialmente, a personas emprendedoras que quieran desarrollar su idea en un espacio de trabajo compartido en el que crear sinergias y colaboraciones con otras disciplinas pudiendo así abarcar proyectos de mayor envergadura.*

*Por tanto, mediante estas subvenciones el Ayuntamiento ayudará en el pago del alquiler a las personas interesadas en instalarse en este espacio de trabajo compartido, para que les resulte más fácil poder comenzar con su nuevo proyecto.*

*El centro tiene capacidad para 11 personas, el alquiler mensual es de 175 euros y el Ayuntamiento subvencionará el 50% del coste del alquiler. La subvención otorgada será para un año y la ayuda percibida no podrá superar los 1200 euros. Toda persona interesada o aquellas que ya están trabajando en este espacio, podrán solicitar las ayudas a partir de julio.*

**Ekintzailetza eta enpresa txikien sorrera sustatzeko, Beasaingo Coworking zentroan kokatu nahi diren herritarrei diru-laguntza emango die Udalak, alokairu-kostuaren %50 ordainduz. 11 pertsonentzako lekua dago bertan eta interesa duten pertsonek uztailetik aurrera eskaera egin ahal izango dute. Horretarako baldintza hauek bete behar dira: herrian erroldatuta egotea, Jardueren gaineko zergan alta emanda egotea eta jarduera hori garatzeko lokalik jabetzan ez izatea.**



# BELAR ARTIFIZIALA KANPOKO IGERILEKUAN

**Loinatz futbol zelaiaren erabilera areagotzeko helburuarekin Udalak belar artifiziala ezarri zuen bertan joan den urtean. Proiektu beraren baitan, hobekuntza modura eta prezio berean, kiroldegiko kanpoko igerilekuan ere belar artifiziala ezartzea adostu zen enpresa esleipendunarekin. Horrela, eremu hori udan erabiltzeaz gain, erabilgarri izango da baita neguan ere.**

**Dagoeneko amaitu dituzte lanak eta beraz, ekainaren 15ean kanpoko igerilekuak belaze berriarekin zabalduko ditu bere ateak. Halaber, bi itzalgune berri sortuko dira, egungo itzalkinak ere mantenduta, herritar ororen erosotasunerako.**

*Tras el cambio de césped del campo de futbol, ahora, se ha instalado hierba artificial en las piscinas exteriores del polideportivo con el objeto de mejorar su actual estado y poder utilizar este espacio también en invierno, sobre todo por los grupos deportivos de Beasain. Estos trabajos, que no han tenido ningún coste añadido para el Ayuntamiento, estaban incluidos en el proyecto del campo de futbol, están ya finalizados por lo que el 15 de junio las piscinas exteriores abrirán sus puertas para dar comienzo a la temporada de verano con aire renovado.*

## *Comienzan las obras de mejora de la accesibilidad y aumento de aparcamientos en Zapatari y Martin Aranburu*

Maiatzaren 21ean hasi ziren Martin Aranburu eta Zapatari kaleetako eraberritze lanak. 3 hilabeteko iraupena izango dute eta abuztuan lanak amaituak izatea aurreikusten da.

Irisgarritasuna hobetzeko espaloi eta errepideak maila berean jarriko dira, bertako aparkaleku kopurua handituko da eta lanak aprobetxatuz zerbitzu sarea ere hobetuko da.



## Itxitura Udaltzaingoan eta komun berriak lehenengo solairuan





*En la primera planta del ala de cultura del Ayuntamiento, se han construido nuevos baños y con el objetivo de mejorar la privacidad y calidad del servicio prestado a la ciudadanía se ha instalado un cerramiento acristalado decorado con vinilo en la sede de la policía municipal.*

# MAIATZEAN BEASAINEN

# 2018ko LOINATZ JAIAK.


































Ibaiaren garbiketa jaien ondoren



Nekolalden asfalto inprimatua



Zaldizurretan argiteria berria



Euskadiko errugbi txapeldunak



Agenda 21: herriko ikasleak alkatearekin



Euskara kirol taldeetan sustatzeko hitzarmena



Dantzari txiki eguna

# HERRITARREN EROSOTASUNAREN ALDE LANEAN: HAN ETA HEMEN

*Dar facilidades  a la ciudadanía y responder a sus necesidades es el principal cometido del Ayuntamiento de Beasain, atendiendo, en cualquier caso, tanto a las personas del centro urbano como de las zonas rurales.*

## HERRI ERDIGUNEA *CENTRO URBANO*

### TAOrako aplikazioaren abantailak

**Aplikazio honen bitartez TAOko makinetan egiten diren eragiketa guztiak mugikorretik egin ahal izango dira makinetara jo beharrik gabe.**

**EROSOA ETA ERRAZA**

1. **TAO ordaindu makinara joan gabe**
2. **Aparkamendu denbora luzatu**
3. **Erabili ez den denborari dagokion diru kopurua berreskuratu**

**Deskargatu eta erabili MUGIPARK mugikorrerako aplikazioa.**

*La APP MUGIPARK te permite gestionar el aparcamiento desde el móvil y recuperar el dinero por el tiempo no utilizado ¡Descárgatela!*



Google Play

### *FÁCIL Y CÓMODO*




MugiParkekin parkimetroa zure sakelan izango duzu




Zehaztu era errazean zure aparkalekuaren kokalekua




Eskuz ere zehaztu dezakezu non aparkatu duzun




Denbora era intuitiboan eta errazean zehazteko aukera duzu




Errepasa itzazu kokalekua eta zehaztutako denbora




Zure aparkalekuaren inguruko informazioa denbora errealean




Erabili ez duzun zenbatekoa berreskuratu ahal izango duzu




Kredituaren birkarga egin eta ez kezkatu aparkatzen duzun bakoitzean

***Desde el Ayuntamiento se llevan a cabo y se impulsan grandes proyectos, pero también pequeñas actuaciones que redundan en beneficio de la ciudadanía y en ocasiones pasan desapercibidas. He aquí algunas de ellas.***

## LANDA AUZOAK *BARRIOS RURALES*

*Los barrios rurales son parte de la fisionomía de **Beasain** y nuestro municipio nada sería sin estos espacios. Por ello, con el objeto de mejorar los servicios y el día a día de las y los vecinos de estos barrios en esta legislatura se han llevado a cabo diversas actuaciones en respuesta a las necesidades identificadas. En **Beasainmendi**, por ejemplo, se ha arreglado el camino a Murumendi por un desprendimiento causado por las fuertes lluvias de este invierno. Lo mismo ha ocurrido en **Arriaran** y el problema ya está en vías de solución. Al igual que en **Astigarreta** se solucionó el problema del agua potable, en **Garin**, se está trabajando con el vecindario en la instalación de una red que recoja las aguas fecales y pluviales y en **Matxinbenta** se terminará de renovar la escuela para que sea utilizada por vecinas y vecinos y se mejorará el camino hasta Nuarbe.*

### UR ZIKINEN BILTZEA GARINEN, INGURUGIROA BABESTEKO



Orain arte, euri urak eta ur zikinak batera bildu izan dira Garinen, zelaietan nolanahi barreiatuz. Hori dela eta, beharrezkotzat jo da hoditeria sistema berritzea eta euri urak ur zikinetatik bereiztea.

Ur kontsortzioak lanak bere gain hartzea lortu da eta hoditeria berrituko da euri urak eta ur zikinak bideratzeko. Horrela ur garbiak zuzenean errekara joango dira eta ur zikinak bildu eta tratatuak izango dira..

### MATXINBENTAKO ESKOLA ETA BIDEAK

Legealdi hasieran, urteetatik zetorren eskaera bati erantzunez, auzoko eskola zaharra eraberritzeari ekin zitzaion auzotarren elkargune bihurtzeko. Teilatua berrituta, lokala egokitzeko lanak hasi ziren eta aurten. Azpeitiko, Ezkio-Itsasoko eta Beasaingo Udalen diru-laguntzekin eskolako lanak amaituko dira.

Beasain eta Azpeitiko udal ordezkariek Matxinbentako bizilagunekin egindako azken bileran, lokala amaitzeko konpromisoa hartzeaz gain, Nuarberainoko bidearen lanketa egiteko konpromisoa ere hartu zuten.



### LUIZIEI KONPONBIDEA EMANEZ MURUMENDIN ETA ARRIARANEN





Negua gogorra izan da, eta zenbait kasutan euriteek luiziak eragin dituzte.

Murumendiko bidea jada konpondua dago eta Arriaranen gertatutako luiziei konponbidea nola eman aztertzen ari da Udala bertako bizilagunekin elkarlanean bideak ahalik eta azkarren konpontzeko.

## UDAN ERE ZATOZ EUSKALTEGIRA!!!
*¡EN VERANO TAMBIÉN AL EUSKALTEGI!*




**Informazio gehiago** *Para más información*
**www.beasain.eus/euskaltegia**

## GOI MAILAKO PILOTA JAIALDIAK BEASAINEN
*IMPORTANTES FESTIVALES DE PELOTA EN BEASAIN*



### Ekainak 8 *Junio* ASPE

**Gazteen Txapelketako finalaurrekoa**

Zubizarreta – Garmendia
vs.
Zabala – Etxeberria

**San Fermin lau eta erdiko kanporaketak**

**Mendiabal** vs. **Elezkano**

**Retegi II** vs. **Irribarria**

### Ekainak 16 *junio* ASEGARCE

**Lehen partida**

Arteaga – Galarza
vs.
Peña II edo Bakaikoa – Albisu

**San Fermin lau eta erdiko kanporaketak**

Bengoetxea VI
vs.
Victor edo Laso

# DATUEKIN JOLASEAN

## Jaietako datuak *Datos de las fiestas*
(Udaltzaingoak jasotako datuak *Datos recogidos por la policía municipal*)

| LAPURRETAK *HURTOS* | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|
| **Telefonoak** *Teléfonos* | 46 | 27 | 18 |
| **Diru-zorroak** *Carteras* | 28 | 8 | 10 |
| **Poltsak** *Bolsos* | 4 | 1 | 2 |
| **Bestelakoak** *Otros* | 4 | 5 | 0 |

| LAPURRETAK INDARKERIAREKIN ETA LARDERIAREKIN *ROBO CON VIOLENCIA E INTIMIDACION* | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|
| **Tiratzea** *Tirón* | 1 | 0 | 0 |

| ERASOAK *AGRESIONES* | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|
| | 4 | 6 | 0 |

| KALTEAK *DAÑOS* | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|
| **Kutxazain automatikoak** *Cajeros automáticos* | 1 | 0 | 0 |
| **Eraikinen ateak** *Puertas inmueble* | 1 | 0 | 1 |
| **Pintaketak egoitza politikoak** *Pintadas sede política* | 0 | 1 | 0 |

| DROGAK *DROGAS* | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|
| **Salmenta, jabetza** *Venta, posesión* | 1 | 0 | 0 |

| IBILGAILU BARRUKO LAPURRETAK *SUSTRACCIONES INTERIOR VEHÍCULO* | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|
| | 4 | 1 | 0 |

# JAKINARAZPENAK *NOTIFICACIONES*

## EGUTEGI FISKALA *CALENDARIO FISCAL*

| ZERGAK ETA TASAK *IMPUESTOS Y TASAS* | **Kobrantza epea** *Periodo de cobro* |
|---|---|
| **Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ)** *Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI)* | 2018.05.15 - 2018.06.30 |

***Helbideratutako ordainagiriak borondatezko epearen azken egunean kobratuko dira** *El cobro de los recibos domiciliados se realizará el último día del periodo voluntario.*

# LOTURA INTERESGARRIAK
## *ENLACES DE INTERÉS*

- **kzGunea**
  www.kzgunea.eus
- **Musika Eskola**
  www.beasaingomusikaeskola.eus
- **Antzizar kiroldegia**
  www.antzizar.net
- **Udal Euskaltegia**
  www.udaleuskaltegiak.eus
- **Igartza monumentu multzoa**
  www.igartza.eus

**www.beasain.eus**

Beasaingo Udala

Lege gordailua SS 403-2016